BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

5404

EBAZPENA, 2008ko martxoaren 25ekoa, Ingurumeneko sailburuordearena, bolbora fabrikatzeko eta lehergaiak ekoizteko jarduerarako ingurumeneko baimen bateratua ematen duena, Galdakaoko udalerrian (Bizkaia) Maxamcorp SAU enpresak sustatua.

AURREKARIAK

2006ko abenduaren 21ean, Ángel María Ibarra Ibarretxe jaunak, Maxamcorp SAU enpresaren izenean eta ordez, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari ingurumeneko baimen bateratua ematea eskatu zion, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak xedatutakoaren arabera, Galdakaoko udalerrian (Bizkaia) bolbora fabrikatzeko eta lehergaiak ekoizteko jarduerarako. Eskaerarekin batera, Galdakaoko Udalak 2005eko abenduaren 9an eman zuen aldeko hirigintza-txostena eta dokumentazio tekniko hau aurkeztu zituen:

- Oinarrizko proiektua (2006ko abendua).
- Laburpen ez-teknikoa (2006ko abendua).

Erreferentziako baimena eskatzeko orduan, Maxamcorp SAU enpresak, besteak beste, jarduera gauzatzeko baimena zuen, 1997ko irailaren 22koa. Aipatutako baimena lehergaiak fabrikatzeko eman zen. Halaber, enpresa sustatzaileak baimen hauek zituen: Atxe errekatik ura hartzeko, kolektorera isurtzeko, 2005eko maiatzaren 10eko hondakin geldoen ekoizleen erregistroan inskribatzeko, eta lehergaiak suntsitzeko instalazioen eta prozeduren baimena, 1944ko urtarrilaren 17koa, 2005eko azaroaren 2koa eta 2000ko ekainaren 1ekoa, hurrenez hurren, bai eta aurrerago egin ziren luzapenak eta berritzeak ere.

2007ko otsailaren 19an, Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak prozeduran esku-hartzea duten hainbat organori txostenak eskatu zizkion, Ingurumen Organoaren bidez proiektua jendaurrean jartzeko izapidetzea adosteari dagokionez. Zehazki, Galdakaoko Udalari, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari kontsultatu zien.

2007ko martxoaren 27an, Ingurumen Organoak agiri osagarriak eskatu zizkion sustatzaileari; espedientea 2007ko uztailaren 13an osatu zen.

Aurkeztutako agiriak nahikoa zirela egiaztatu ondoren, Ingurumen sailburuordeak 2007ko azaroaren 14an emandako Ebazpenaren bidez, jendaurrean jarri zen 30 egun balioduneko epean, Maxamcorp SAU enpresak sustatutako proiektua, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian nahiz Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, bietan 2007ko abenduaren 3an. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko bi egunkaritan argitaratu zen 2007ko abenduaren 2an, eta proiektuak hartuko duen eremuaren ondoko auzokide bakoitzari jakinarazpena bidali zitzaion.

Jendaurrean jartzeko izapidea amaitu ondoren, alegaziorik ez dagoela egiaztatu da.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoa betez, 2008ko urtarrilaren 14an Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak txostenak eskatu zizkien Galdakaoko

Udalari, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari, espedientean ageri den emaitza jasoz.

2008ko martxoaren 5ean, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan xedatutakoa betez, espediente osoa Maxamcorp SAU enpresaren esku utzi zen, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak egindako Ebazpenaren Proposamena gehituz.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestea edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea; eta hori lortzeko, ingurumen osoaren babes-maila altua helburutzat harturik, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezartzea.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatu eta burutzeko Erregelamendua onartzen duen apirilaren 20ko 509/2007 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez, baimen honetan sartzen dira ekoizpen-elementu eta lerro guztiak; 16/2002 Legearen 1. eranskinean aipatzen ez diren arren, lege hori aplikatu beharreko esparruko jardueren instalazioetan gauzatzen dira eta jarduera horrekin zerikusia dute.

16/2002 Legearen 9. artikuluak ezartzen duena betez, ingurumeneko baimen bateratua behar dute 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko. 11. artikuluaren arabera, baimen honen oinarrizko helburua baldintzak ezartzea da, araua, berau aplika daitekeen instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena emateko parte hartuko duten Herri Administrazio desberdinen artean koordinatuta izango den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzearren. Era berean, indarrean dagoen araudiaren araberako ingurumeneko administrazio-baimen guztiak egintza administratibo bakar batean bildu nahi dira. Maxamcorp SAU enpresaren kasuan, baimen hauek guztiak behar ditu: hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuak sortzeko baimena, saneamendu-sare orokorrera isurketak egiteko baimena, eta ingurumen-izaerako beste zehaztapenen artean, atmosferaren kutsadurari dagozkion baimenak, eta lurzoruaren kutsadura prebenitu eta zuzentzeari dagozkionak. Gainera, espedientean beste administrazio eta erakunde eskudun batzuek ere parte hartu dute, aginduzko txostenak igorriz.

16/2002 Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozedurak jarduera sailkatuetarako udal-lizentziaren prozedura ordezkatzen du, jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei buruzko azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuan aurreikusten zena; ez du ordezkatzen, ordea, udal-agintaritzak emango duen behin betiko ebazpena. Ondorio horietarako, ingurumeneko baimen bateratua udal-agintarientzat loteslea izango da, baldin eta lizentzia ukatzeko bada edota neurri zuzentzaileak ezartzeko bada; baita aipatu arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen-alderdiei buruzko aipamena egiten bada ere. 29. artikulu horretan aipatzen denez, goiko guztiak ez ditu kaltetuko autonomia-erkidego bakoitzean jarduera sailkatuei aplikatzekoak diren gainerako arauak. Transkribatutako aginduak aplikatuz, Maxamcorp SAU enpresari dagokion ingurumeneko baimen bateratuaren prozedurak barne hartu ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean aurreikusitako izapideak, eta Galdakaoko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren txostenak eskatu dira, espedientean agertzen den bezala.

Azkenik, instalazioak gehienez isur ditzakeen gai kutsagarrien muga-balioak eta ingurumena, oro har, ahalik eta gehien babesteko ustiapenerako ezarriko zaizkion beste baldintza batzuk zehazte aldera, ebazpen hau egiterakoan kontuan izan dira teknika erabilgarri onenak. Zehazki, Europako Batzordearen 2006ko abuztuko organiko finaren BREF «Reference Document on Best Available Techniques for the Manufacture of Organic Fine Chemicals» txostenaren edukiak kontuan hartu dira.

Espedienteko txostenak aztertu ondoren, ebazpen-proposamena egin zen, eta Maxamcorp SAU enpresak sustatutako proiektuari aplikatzekoak diren baldintzak txertatu ziren bertan.

Goian adierazitako izapideak amaitu dira, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan jasotzen den entzunaldi-izapidea bete da, eta organo hau da ingurumeneko baimen bateratu hau emateko eskuduna, aipatutako araudiaren 13. artikuluan eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretuaren 9. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Ondorengo araudia ikusi da: Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak 2008ko martxoaren 5en emandako Ebazpen-proposamena; Euskal Herriko Ingurumena Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra; Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea; Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazioari buruzko ekainaren 28ko 1302/1986 Legegintzako Errege Dekretua, maiatzaren 8ko 6/2001 Legeak aldatu zuena; Legea burutzeko araudia onartzen duen irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretua; Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretua; Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea eta aplika daitekeen gainerako araudia, eta

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Helbide soziala Galdakaoko udalerriko (Bizkaia) Zuazo Auzoa kalean (z/g) –28042– duen eta IFK A78876331 zenbakia duen Maxamcorp SAU enpresari Galdakaoko udalerrian bolborak eta lehergailuak fabrikatzeko jarduerarako ingurumeneko baimen bateratua ematea, ebazpen honen bigarren atalean zehaztutako baldintzak jarraituz.

Jarduera Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. eranskineko 4.6 kategorian jasota dago, «Lehergailuak fabrikatzeko instalazio kimikoak» izenburupean.

Maxamcorp SAU enpresaren instalazio Galdakaoko udalerrian (Bizkaia) dago, eta 279.744 m^2-ko azalera okupatzen du.

Maxamcorp SAU enpresaren jarduera nagusia bolborak eta lehergaiak fabrikatzea da. Instalazioak fabrikatzen duen produktu-mota bakoitzerako honako ekoizpen-ahalmen hau du urtean:

- Ehizarako bolbora soil basea: 770.000 kg.
- Armadarako bolbora soil basea: 200 t.
- Bolbora bikoitz basea: 6.000 kg.
- Lehergai plastikoa: 6.000 kg.
- Nagolita: 4.000 t.

● Nitroglizerina eta nitroglikola: 92.500 kg.

● Inpregnazioak: 10.000 kg.

● Hauts-lehergaiak: 1.100 t.

● Monometilamina nitratoa: 1.700 t.

● Hidrogelak: 5.800 t.

● Bolbora beltza: 380 t.

Hona hemen Maxamcorp SAU enpresaren fabrikazio-prozesuak:

● Inpregnazioen fabrikazioa (nitroglizerinan inpregnatutako nitrozelulosen oreak): Prozesuak ondorengo fase hauek ditu: ore inpregnatua prestatzea (nitroglizerina, ura, nitrozelulosa eta egonkortzaileak oinarri gisa hartuta), eta inpregnatutako orea homogeneizatu eta zentrifugatzea, soberan dagoen ura kentzeko. Halaber, nitroglizerinarekin alkohol-disoluzioa ere fabrika daiteke, alkohol etilikoa eta glizerina nahastu eta irabiatuta.

● Hauts-lehergaien (ligamitak, amonitak eta segurtasuneko lehergaiak) fabrikazioa: Ia prozesu osoa automatikoa da eta bitan banatzen da: leherketako orea prestatzea (batez ere lehengaiak nahastu eta ehotzea) eta leherketako orea kartutxoratzea.

● Nagolitaren fabrikazioa: amonio nitratoaren eta gasolioaren arteko nahasketan oinarritzen da. Nagolita soltean lortzeko, kamioi baten gainean zuzenean hornitzen duen torloju amaigabe baten bitartez garraiatzen da, eta nagolita zakuraturako zakuragailu/pisagailu baten bitartez garraiatzen da.

● Nitroglizerina eta nitroglikolaren fabrikazioa: prozesuaren lehen fasea da nitrazio-prozesuan parte hartzen duten gaiak prestatzea: nahaste sulfonitrikoak (azido nitrikoa eta azido sulfurikoa erabilita), glizerina eta glikol (edo bien arteko nahastea) eta ur karbonatatua (sodio karbonatoa erabiliz). Bigarren fasea glizerina/grikolaren nitrazioa da, ondoren bereiziko dira hondakin-azidoaren NGL/NGkol zentrifugatuta eta fasetan garbituta.

● Bolbora beltzaren fabrikazioa: prozesuak ondorengo fase hauek ditu: potasio nitratoko ehotzea, sufre eta ikatza ehotzea eta nahastea (bitarra), potasio nitratoarekin produktu bitarra ehotzea eta nahastea, gomazko bolen bidez lortutako produktua nahastea, moldekatzea, prentsatzea, aletzea, grafitatzea, hautsa kentzea, sailkatzea, lehortzea, ontziratzea, zumiztea eta paletetan jartzea, eta ikatza lehortzea.

● Sailkatu gabeko lehergaiak ezabatu eta eraistea: aire zabalean erretzen duen gailu batekin funtzionatzen du.

Instalazioan energia elektrikoa erabiltzen da lehergaiak fabrikatzeko. Zerbitzu orokorretan, berriz, gas naturala erabiltzen da urtean 1.719.756 m^3 kontsumituta. Halaber gasolioa erabiltzen da automobilgintzarako, nagolitak fabrikatzeko, eta sailkatu gabeko lehergaiak errazago eraisteko. 700 KW-ko potentzia elektrikoa instalatu dute.

Hozteko eta suteak itzaltzeko instalazioan erabilitako ura Atxe errekatik hartzen da, eta kontsumitutako gainerako ura Saneamenduko Sare Nagusitik. Urtean instalazioetan 225.095 m^3 ur kontsumitzen da.

Instalazioak atmosferara bideratutako 11 isurtze-foku ditu: otsailaren 6ko 833/1975 Errege Dekretuaren arabera sailkatutako lurruna sortzeko bi galdara, eta hauts-fabrikaziorako, hidrogelak fabrikatzeko eta nitroglizerina nitrazioko prozesuetara lotutako 9 foku ez-sistematiko.

UEB, Maxam Europe (Galdakaoko fabrika), Maxam Outdoor eta SDP fabrikaren artean 2006ko urriaren 11n hartutako erabakian, hondakin-uren tratamenduko instalazioaren Erantzukizun Partekatuko Akordioaren arabera, instalazio horiek hondakin-urak Maxam Europen (Galdakaoko fabrika) dagoen hondakin-uren tratamenduko instalaziora isurtzen dituzte. Aipatutako akordioaren arabera, lau enpresek erantzukizun partekatua hartzen dute tratamendu hori gauzatzen denean eman daitekeen edozein gertakari edo istripuren aurrean.

Maxam Europe (Galdakaoko fabrika), UEB, Maxam Outdoors eta SDP fabrikaren instalazioetan honako efluente hauek sortzen dira: produkzio-prozesuetatik datozen industria-urak, ur sanitarioak, euri-urak eta hozte-urak.

Efluente horiek Maxam Europe-ko (Galdakaoko fabrika) instalaziotan dagoen eta 17,5 m^3/h tratamendu-ahalmena duen araztegi batera bideratzen dira. Honako etapa hauek bereizten dira bertan: disolbatzaileak berreskuratzea, homogeneizazio-istila eta 400 m^3-ko edukierako industria-uren ponpaketa, 40 m^3-ko pH-ko neutralizazio automatikoko istila.

Tratatu ondoren, efluenteak isurketa-puntu bakar batetik heltzen dira Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren saneamenduko sistema integralera.

Honakoak sortzen diren hondakin nagusiak: errekuntzako errautsak, glizerina zaharkitua, koipedun olioa eta metalak, hondakin solido azidoak, zurezko paletak, txatarra, hiri-hondakin solidoak, plastikoa, papera, eta abar.

Proiektuak, besteak beste, teknika erabilgarri onentzat (TEO) jo daitezkeen neurri hauek ditu, Europako Batzordearen 2006ko abuztuko «Referente Document on Best Available Techniques for the Manufacture of Organic Fine Chemicals» erreferentziako agirian adierazitakoaren arabera: NO_x berreskuratu/arazteko ur oxigenatu eta urarekin xurgatzea, hondakin urtsuak murrizteko zeharkako hoztea, hondakin-azidoen destilagailua eta azido nitrikoa berreskuratzea, azidoak eta glikola eranstea hondakin-azidoak murrizteko erreaktore hermetiko bidez.

Bigarrena.– Maxamcorp SAU enpresak Galdakaoko udalerrian sustatutako bolbora eta lehergaiak fabrikatzeko jarduera ustiatzeko ondorengo baldintzak eta betekizunak ezartzea:

A) Administrazioarekiko harremanez arduratuko den pertsonaren gainean Ingurumen Sailburuordetzari eman dizkion datuetan aldaketarik balego, Maxamcorp SAU enpresak aldaketa horien berri emango du.

B) Neurri babesle eta zuzentzaileak, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusita bezala burutuko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera eta ondorengo ataletan ezarritakoari jarraituz:

B.1.– Instalazioaren jardunerako baldintza orokorrak.

B.1.1.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

B.1.1.1.– Baldintza orokorrak.

Bolborak eta lehergaiak fabrikatzeko Maxamcorp SAU instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isurketek ez dituzte Ebazpen honetan ezarritako balioak gainditukо.

Prozesuan zehar atmosferara isurtzen den gai kutsatzaile oro bildu eta ihesbide egokienean zehar kanpora bideratuko da, behar denean, gai kutsatzaileen ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren.

Arau orokor hori bete beharrik ez dute izango gai kutsatzaileak mugarik gabe isuri eta horiek biltzea teknikoki eta/edo ekonomikoki bideragarria ez denean, edo ingurunean kalte urria eragiten dutela egiaztatzen denean.

Neurriak hartuko dira ustekabean gai kutsatzaileak botatzeko probabilitatea murriztu, eta botatzen direnak giza osasunerako nahiz gizartearen segurtasunerako arriskutsuak izan ez daitezen. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala ustiatu eta mantenduko dira, efluenteen tenperatura- eta konposizio-aldakuntzei modu eraginkorrean aurre egiteko. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabiltzan edo geldirik dauden aldiak.

B.1.1.2.– Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

Bolborak eta lehergaiak fabrikatzeko Maxamcorp SAU enpresaren instalazioak ondorengo foku hauek ditu, atmosfera babestearen arloan indarrean dagoen araudiaren arabera katalogatuta:

Foku zk.	Erregistro-liburuan duen izena	Isurtze-fokuaren izena	Katalogazioa	
			Taldea	Epigrafea
1	48007640-01	1. galdara	C	3.1.1
2	48007640-02	2. galdara	C	3.1.1
3-D	48007640-03D	Alfa Laval	Foku ez-sistematikoa	
4-D	48007640-04	Hidrogelen fabrikazioa	Foku ez-sistematikoa	
5-D	48007640-05D	Azido Nitrikoa haizatzea (NO_x)	Foku ez-sistematikoa	
6-D	48007640-06D	Sodio karbonatoko disoluzioa gauzatzea (partikulak)	Foku ez-sistematikoa	
7-D	48007640-07D	Minoritarioen hautsa xurgatzea	Foku ez-sistematikoa	
8-D	48007640-08D	Sodio nitratoko homogeneizadoreko hauts-xurgagailua	Foku ez-sistematikoa	
9-D	48007640-09D	Amonio nitratoko hauts-xurgagailua	Foku ez-sistematikoa	
10-D	48007640-10D	A nahasgailuko zikloi-tobera	Foku ez-sistematikoa	
11-D	48007640-11D	B nahasgailuko zikloi-tobera	Foku ez-sistematikoa	

Aurreko taulan bildutako isurtze-fokuen altuera, barruko diametroa eta UTM koordenatuen datuak eman beharko dira.

Foku ez-sistematikoen emisioak instalazioaren funtzionamendu globalaren % 5 baino gehiago funtzionatzen hasten badira edo ordubete baino epe luzeagotan urtean 12 aldiz baino gehiago isurtzen hasten badira, foku gisa erregularizatzeko eskatuko da.

Bestalde, sailkatu gabeko lehergaiak ezabatu eta eraistetik jasotako isurtze barreiatuak sortzen dira. Sailkatu gabeko lehergaien errekuntza-gasek eta lehergaiak fabrikatzen erabilitako lehengaien hondakinek osatzen dituzte sortutako isurtze barreiatuak.

B.1.1.3.– Isurtzeko muga-balioak.

a) Atmosferara isurtzen diren gai poluitzaileek ondorengo balioak ez gainditzeko moduan ustiatuko da instalazioa:

Fokua(k)	Substantziak	Isurtzeko muga-balioak
1	CO	500 ppm
	NO_x	300 ppm
2	CO	500 ppm
	NO_x	300 ppm

Isurtzeko muga-balioak baldintza hauei buruzkoak dira: 273 K-eko tenperatura, 101,3 kPa-ko presioa eta gas lehorra.

b) Neurtutako parametroek ez dituzte isurtzeko muga-balioak gainditu behar, arauz egingo diren aldizkako ikuskaritzetan (ordubeteko hiru neurketa, gutxienez) zortzi ordutan zehar neurtuta. Neurketa-tolerantzia gisa, kasu guztien % 25ean gainditu ahal izango da muga-balioa, % 40a gainditzen ez duen zenbatekoa baldin bada. Tolerantzia hori gainditu gero, neurketa-aldia astebetez luzatuko da eta aldi horretako tolerantzia global gisa, kasuen 100eko seian gehienezko maila onargarriak gainditzea onartuko da, 100eko hogeita bosta gainditzen ez duen zenbatekoa denean. Tolerantzia horiek izanda ere, gai kutsatzaileak isurtzen dituen fokuaren eraginpeko zonaldean ezin izango dira inoiz higienikoki onar daitezkeen balioak gainditu.

B.1.1.4.– Gasak biltzeko eta husteko sistemak.

Fokuetako gas hondarrak kanporatzeko tximiniek ez dute B.1.1.2 atalean jasota dagoen goreneko kota baino baxuagoa izango. Tximinietan behar beste neurri hartuko dira Industria Ministerioak industriak atmosferan eragiten duen kutsadurari aurrea hartu eta hori zuzentzeari buruz 1976ko urriaren 18an emandako Agindua bete dezaten; besteak beste, laginak hartzeko puntuetara iristeko sarbide seguru eta errazak izango dituzte.

Zehazki, laginak hartzeko aurreikusitako zuloen kokapenari eta ezaugarriei dagokienez, gas-fluxuak laginketa-puntutik neurketa-puntura bitartean, bere norabidean zehar nahiz aurkakoan, edozein asaldu izan dezakeen gunera bitarteko distantziek (L1 eta L2 parametroak) 1976ko urriaren 18ko Aginduaren III. eranskinean xedatutakoa beteko dute.

L1 ≥ 8D eta L2 ≥ 2D distantziak betetzen ez diren fokuetan, inoiz ez dira L1 < 2D eta L2 < 0,5D balioak onartuko. Kasu horietan, neurketen txostenean laginketa-planoaren baliotasuna justifikatzea eskatuko da.

B.1.2.– Saneamendu-sarera isurketak egiteko baldintzak.

B.1.2.1.– Isurketen sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokapena.

Isurketa-puntua	Hondakin-ur mota	Isurketaren jatorria	Ingurune hartzailea	UTM koordenatuak
1	Industriako eta hozteko hondakin-urak	Maxamcopr, UEB, Maxam Outdoors eta SDP enpresek garatutako jardueren industria- eta hozte-urak.	Udalaren saneamendu-sarea (Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoa)	X: 511.867 Y: 4.786.417

B.1.2.2.– Gehienez isur daitezkeen emari eta bolumenak.

a) 1. isurketa: Industria-urak eta hozte-urak.

Orduko puntako emaria	30 m^3/h
Eguneko gehienezko bolumena	2,7 m^3/egun
Urteko gehienezko bolumena	23.915 m^3

B.1.2.3.– Isurtzeko muga-balioak.

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko «Saneamendu-sareko isurketak erregulatzen dituen araudian» agertzen diren mugak eta baldintzak bete beharko dira, erakunde horrek aintzat har ditzakeen zehaztapen, aldaketa edo salbuespenekin.

Ezingo dira diluzio-teknikak erabili isurtzeko muga-balioak lortzeko.

B.1.2.4.– Araztu eta husteko instalazioak.

Arazketa-instalazioek edo hondakin-urak zuzentzeko neurriek honako jarduera hauek barne hartuko dituzte funtsean: 17,5 m^3/h-ko tratamendu-ahalmena duten hondakin-uren araztegiak honako etapa hauek ditu: disolbatzaileak berreskuratzea, homogeneizazio-istila eta 400 m^3-ko edukierako industria-uren ponpaketa, 40 m^3-ko pH-ko neutralizazio automatikoko istila eta parshall kaudalimetroa duen kontrol-kutxeta.

Aurkeztutako agirien arabera, kontrol-kutxeta bat jarriko da baimendutako isurketarako; kutxeta horrek isurketen lagin esanguratsuak lortzeko beharrezkoak diren ezaugarri guztiak izango ditu. Kutxeta ikuskatu ahal izateko sarbide zuzena ahalbidetzen duten lekuan kokatuko da, hala dagokionean.

B.1.3.– Instalazioan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Instalazioetan sortzen diren hondakin guztiak hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean eta aplikatzekoa den berariazko gainerako araudian xedatutakoari jarraituz kudeatuko dira; hala badagokio, hondakinak karakterizatu egin beharko dira euren izaera zehaztu eta helburu egokiena erabakitzeko.

Espresuki debekatuta dago sortzen diren tipologia desberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira eta horiek bildu eta biltegiratzeko bide egokiak jarriko dira, nahasketa horiek saihesteko.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro baliotu egin behar da eta horretarako autokudeaketa behar da edo balioztagune baimendu batera eraman behar dira. Hondakinak ezabatu ahal izango dira, baldin eta horiek baliotzea teknika, ekonomia edota ingurumen aldetik bideragarria ez dela behar bezala egiaztatzen bada. Birsortzea eta berrerabiltzea lehenetsiko dira baliotzeko beste modu material edo energetikoren aurretik.

Era berean, hondakinak tratatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan instalazio baimenduak badaude, instalazio horietara bidaliko dira lehentasunez, autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioei jarraituz.

Baimendutako zabortegian ezabatzea aurreikusita dagoen hondakinen karakterizazioa, 2002ko abenduaren 19ko Kontseiluaren 2003/33/EE Erabakiarekin bat etorriz gauzatuko da. Erabaki horren

bidez, hondakinak zabortegian hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dira. Bestela, erabaki hori garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan onartutako jarraibideekin bat etorriz gauzatuko da.

Hondakinak biltzeko eremuak edo eremuek lurzoru estankoak izan beharko dituzte. Egoera fisiko likidoan edo oretsuan dauden edo oso bustita daudelako isurketak edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakinen kasuan, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak jarriko dira, ezbeharrez gerta daitezkeen isurketak kanpora irten ez daitezen. Hondakina hautsa bada, euri-urarekin kontakturik izan dezan edo haizeak arrasta dezan saihestuko da; behar izanez gero, estali egingo da.

Hondakinek desagertu, galdu edo ihes egingo balute, berehala jakinaraziko da gertatutakoa Ingurumen Sailburuordetzan eta Galdakaoko Udalean.

B.1.3.1.– Hondakin arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin arriskutsuak honako hauek dira:

● 1. prozesua: «Lehergaien fabrikazioa».

○ 1. hondakina: «Glizerina zaharkitua».

– Identifikazioa: A78876331/4800900030/1/1.

– Hondakinaren kodea: Q7//R13//L20//C41//H5//A750//B6313.

– EHZ: 08 04 09.

Nitroglizerina eta nitroglikoleko inpregnazioak fabrikatzeko azpiprozesuan sortzen da. Hondakinen biltegian jasotzen da ondoren baimendutako kudeatzaileak bertatik eramateko.

○ 2. hondakina: «Koipedun olioa eta metalak».

– Identifikazioa: A78876331/4800900030/1/2.

– Hondakinaren kodea: Q5//D15//S34//C51//H5//A750//B6313.

– EHZ: 16 01 07.

Instalazioetan gauzatutako lehergaien fabrikazio-prozesuetan sortzen da (inpregnazio, hauts-lehergai, nagolita, nitroglizerina eta nitroglikol eta bolbora beltzaren fabrikazioa). Hondakinen biltegian jasotzen da ondoren baimendutako kudeatzaileak eramateko.

○ 3. hondakina: «Hondakin solido azidoak».

– Identifikazioa: A78876331/4800900030/1/3.

– Hondakinaren kodea: Q8//D15//S27//C18/23//H6//A750//B6313.

– EHZ: 06 04 05.

Instalazioetan gauzatutako lehergaien fabrikazio-prozesuan sortzen da (inpregnazio, hauts-lehergai, nagolita, nitroglizerina eta nitroglikol eta bolbora beltzaren fabrikazioa).

○ 4. hondakina: «Fuel-olioa duten solidoak».

– Identifikazioa: A78876331/4800900030/1/4.

– Hondakinaren kodea: Q7//R9//L8//C53//H5//A750//B6313.

– EHZ: 13 07 01.

Instalazioetan gauzatutako lehergaien fabrikazio-prozesuan sortzen da (inpregnazio, hauts-lehergai, nagolita, nitroglizerina eta nitroglikol eta bolbora beltzaren fabrikazioa). Hondakinen biltegian jasotzen da ondoren baimendutako kudeatzaileak eramateko.

○ 5. hondakina: «Titaniodun glikola».

– Identifikazioa: A78876331/4800900030/1/5.

– Hondakinaren kodea: Q7//R13//L20//C41//H6//A750//B6313.

– EHZ: 16 05 08.

Nitroglizerina eta nitroglikola fabrikatzeko prozesuan sortzen da. Hondakinen biltegian jasotzen da ondoren baimendutako kudeatzaileak eramateko.

○ 6. hondakina: «Ura duen fuel-olioa».

– Identifikazioa: A78876331/4800900030/1/6.

– Hondakinaren kodea: Q7//R13//P9//C51//H6//A750//B6313.

– EHZ: 16 07 08.

Instalazioetan gauzatutako lehergaien fabrikazio-prozesuan sortzen da (inpregnazio, hauts-lehergai, nagolita, nitroglizerina eta nitroglikol eta bolbora beltzaren fabrikazioa). Hondakinen biltegian jasotzen da ondoren baimendutako kudeatzaileak eramateko.

○ 7. hondakina: «Azido 2 metil 6-nitrobenzoikoa».

– Identifikazioa: A78876331/4800900030/1/7.

– Hondakinaren kodea: Q3//D15//S20//C23//H5//A750//B6313.

– EHZ: 06 01 06.

Lehergaiak fabrikatzeko azpiprozesuan sortzen da. Hondakinen biltegian jasotzen da ondoren baimendutako kudeatzaileak eramateko.

● 2. prozesua: «Sailkatu gabeko lehergaiak eta lehengaien hondakinak eraistea».

○ 1. hondakina: «Errekuntzako errautsak».

– Identifikazioa: A78876331/4800900030/2/1.

– Hondakinaren kodea: Q5//D13//S22/C18//H5// A750//B6313.

– EHZ: 06 04 05.

Sailkatu gabeko lehergaiak eta erabilitako lehengaien hondakinak ezabatu eta eraisteko prozesuan sortzen dira. Hondakinen biltegian jasotzen da ondoren baimendutako kudeatzaileak eramateko.

● 3. prozesua: «Zerbitzu orokorrak».

○ 1. hondakina: «Poliklorobifeniloekin kutsatutako olioa».

– Identifikazioa: A78876331/4800900030/3/1.

– Hondakinaren kodea: Q2//D15//C 32/H6//A750//B0019.

– EHZ: 13 03 01.

Lehergaiak fabrikatzeko prozesutik poliklorobifeniloa duen olioa erretiratzean gertatzen den mantentze orokorreko eragiketetan sortzen da. Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da sortzen den postuan edo postuetan. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

○ 2. hondakina: «Disolbatzaile ez-halogenatuak – pinturak».

– Identifikazioa: A78876331/4800900030/3/2.

– Hondakinaren kodea: Q7//R13//L5//C41//H3B//H6//A750//B0019.

– EHZ: 14 06 03.

Lehergaiak fabrikatzean sortzen da. Hondakin hau pintura-hondarrekin erabilitako disolbatzailea da. Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da sortzen den postuan edo postuetan. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

○ 3. hondakina: «Amiantodun isolatzeko materiala».

– Identifikazioa: A78876331/4800900030/3/3.

– Hondakinaren kodea: Q14//D15//S40//C25//H6//A750//B0019.

– EHZ: 17 06 01.

Lehergaiak fabrikatzeko azpiprozesutik isolatzeko materiala erretiratzean sortzen da.

○ 4. hondakina: «Kutsatutako kartoi-ontzi hutsak».

– Identifikazioa: A78876331/4800900030/3/4.

– Hondakinaren kodea: Q6//D15//S36//C41/C51//H05//A750//B0019.

– EHZ:15 01 10.

Laborategian olioak, produktu kimikoak edo bestelako gai kutsatzaileak gorde dituzten kutsatutako kartoi-ontzi hutsak biltzean sortzen da. Hondakin horrentzat identifikatutako edukiontzian biltzen da hondakina bera sortzen den lekuan, eta bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

○ 5. hondakina: «Pintura-hondakinak».

– Identifikazioa: A78876331/4800900030/3/5.

– Hondakinaren kodea: Q14//R13//P12//C41//H06//A750//B0019.

– EHZ: 08 01 11.

Lehergaiak fabrikatzeko azpiprozesuan sortzen da.

○ 6. hondakina: «Matrize oxidatzailea».

– Identifikazioa: A78876331/4800900030/3/6.

– Hondakinaren kodea: Q7//D15//SP40//C31//H5//A750//B0019.

– EHZ: 06 01 06.

Lehergaiak fabrikatzeko azpiprozesuan sortzen da.

○ 7. hondakina: «Ekipo elektronikoak».

– Identifikazioa: A78876331/4800900030/3/7.

– Hondakinaren kodea: Q14//R4//S40//C6-18//H6-14//A750//B0019.

– EHZ: 16 02 13.

Ekipo elektronikoak birjartzean sortzen da; baztertutako ekipo ofimatikoak dira. Hondakinarentzat identifikatu den zonan jasotzen da, hondakin arriskutsuen biltegian.

○ 8. hondakina: «Kutsatutako kartoi-ontziak».

– Identifikazioa: A78876331/4800900030/3/8.

– Hondakinaren kodea: Q5//D15//S36//C41-51//H5//A750//B0019.

– EHZ: 15 01 10.

Laborategian olioak, produktu kimikoak edo bestelako gai kutsatzaileak gorde dituzten kutsatutako kartoi-ontziak biltzean sortzen da. Hondakin horrentzat identifikatutako edukiontzian biltzen da hondakina sortzen den lekuan, eta bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

○ 9. hondakina: «Olioz inpregnatutako solidoak».

– Identifikazioa: A78876331/4800900030/3/9.

– Hondakinaren kodea: Q5//D15//S36// C41-51//H5//A750//B0019.

– EHZ: 15 02 02.

Elementu xurgatzaileak eta ehun-elementuak biltzean sortzen da; oliotan inpregnatutako trapuak, material xurgatzailea... dira. Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da sortzen den postuan edo postuetan. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

○ 10. hondakina: «Beruna duten bateriak».

– Identifikazioa: A78876331/4800900030/3/10.

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S37//C23-18//H8//A750//B0019.

– EHZ: 16 01 01.

Beruna duten pila agortuak birjartzeko eragiketetan sortzen da. Hondakin horrentzat identifikatutako edukiontzian biltzen dira, horretarako berariaz jarritako gunean.

○ 11. hondakina: «Bateriak eta metagailuak».

– Identifikazioa: A78876331/4800900030/3/11.

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S37//C11-16//H6//A750//B0019.

– EHZ: 20 01 33.

Metagailu agortuak birjartzeko eragiketetan sortzen da. Hondakin horrentzat identifikatutako edukiontzian biltzen dira, horretarako berariaz jarritako gunean.

○ 12. hondakina: «Nikel eta kadmioko bateriak».

– Identifikazioa: A78876331/4800900030/3/12.

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S37//C11-24//H8//A750//B0019.

– EHZ: 16 06 02.

Metagailu agortuak aldatzeko eragiketetan sortzen da; nikela eta kadmioa bezalako metalak daramatzan elektrolito alkalinoa dute. Hondakin horrentzat identifikatutako edukiontzian biltzen dira, horretarako berariaz jarritako gunean.

○ 13. hondakina: «Andelen garbiketarako gasolioko hondakinak».

– Identifikazioa: A78876331/4800900030/3/13.

– Hondakinaren kodea: Q8//D9//R1//L9//C51//H5//A750//B0019.

– EHZ: 13 07 01.

Gasolioko andelen garbiketen mantentze-eragiketetan sortzen da. Hondakin horrentzat identifikatutako edukiontzian biltzen dira, horretarako berariaz jarritako gunean.

○ 14. hondakina: «Disolbatzaile organiko ez-halogenatua».

– Identifikazioa: A78876331/4800900030/3/14.

– Hondakinaren kodea: Q7//R13//L5//C41//H3b-5//A750//B6313.

– EHZ: 14 06 03.

Tresna eta lanabesen garbiketan sortzen da; disolbatzaile organiko ez-halogenatua da. Sortzen den puntuan jasotzen da zuzenean kudeatzaile baimenduari entregatzeko.

○ 15. hondakina: «Poliklorobifeniloak dituzten transformadoreak».

– Identifikazioa: A78876331/4800900030/3/15.

– Hondakinaren kodea: Q12//D15R13//S10//C32//H6-7//A750//B0019.

– EHZ:16 02 09.

Mantentze-lan orokorreko azpiprozesuaren hondakin gisa sortzen da; kudeatzaile baimenduari entregatzeko erretiratzen da zuzenean.

○ 16. hondakina: «Laborategiko erreaktiboak».

– Identifikazioa: A78876331/4800900030/3/16.

– Hondakinaren kodea: Q3//R13//P14//C51//H6//A750//B6313.

– EHZ:16 05 06.

Aztertzen ari diren laborategiko erreaktiboak erabiltzean sortzen dira. Batez ere produktu kimiko organikoak eta/edo inorganikoak dira. Hondakinarentzat identifikatutako kutxan sartutako potetan biltzen da, eta behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

○ 17. hondakina: «Metal astunak dituzten solidoak».

– Identifikazioa: A78876331/4800900030/3/17.

– Hondakinaren kodea: Q8//D15//S27//C5-23//H4-6//A750//B0019.

– EHZ: 06 03 13.

Lehergaiak fabrikatzean sortzen da. Metal astunekin kutsatutako solidoak dira. Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da sortzen den postuan edo postuetan. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

○ 18. hondakina: «Erabilitako olioa».

– Identifikazioa: A78876331/4800900030/3/18.

– Hondakinaren kodea: Q7//R13//L8/C53//H5//A750//B0019.

– EHZ: 13 02 05.

Makina diferentetan olioa berrezartzeko lanetan sortzen da; olio hidrauliko erabiliak dira. Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da sortzen den postuan edo postuetan. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

○ 19. hondakina: «Merkurioz kutsatutako ura».

– Identifikazioa: A78876331/4800900030/3/19.

– Hondakinaren kodea: Q2//D15//S27//C16//H6//A750//B0019.

– EHZ: 16 05 06.

Laborategian egindako eragiketen azpiprozesuan sortzen da.

○ 20. hondakina: «Ontzi huts kutsatuak».

– Identifikazioa: A78876331/4800900030/3/20.

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C51//H5//A750//B0019.

– EHZ: 15 01 10.

Laborategian olioak, produktu kimikoak edo bestelako gai kutsatzaileak gorde dituzten kutsatutako ontzi hutsak biltzean sortzen da. Hondakin horrentzat identifikatutako edukiontzian biltzen da sortzen den lekuan, eta bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

○ 21. hondakina: «Merkurio-hondakinak».

– Identifikazioa: A78876331/4800900030/3/21.

– Hondakinaren kodea: Q7//D15//S40//C16//H5//A750//B0019.

– EHZ: 16 05 07.

Laborategian egindako eragiketen azpiprozesuan sortzen da.

○ 22. hondakina: «Taladrina gehi olioa».

– Identifikazioa: A78876331/4800900030/3/22.

– Hondakinaren kodea: Q9//D9//L9//C51//H5//A750//B0019.

– EHZ: 12 01 09.

Mekanizazio-eragiketetan taladrina erabiltzerakoan hondakin gisa sortzen da; emultsio oliotsua da. Makinak garbitzean hondakin horrentzako identifikatutako bidoian biltzen da eta bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

○ 23. hondakina: «Bilketan infekzioak prebenitzeko baldintza bereziak behar dituzten hondakinak».

– Identifikazioa: A78876331/4800900030/3/23.

– Hondakinaren kodea: Q16//D15//S01//C35//H09//A750//B0019.

– EHZ: 18 01 03.

Zerbitzu medikoko hondakin gisa sortzen da, eta sortzen den lekuan dauden bidoitan aldi baterako gordetzen da. Bertatik jaso eta baimendutako kudeatzaileari entregatzen zaio.

○ 24. hondakina: «Hodi fluoreszenteak».

– Identifikazioa: A78876331/4800900030/3/24.

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S40//C16//H6/14//A750//B0019.

– EHZ: 20 01 21.

Merkurioa duten lanpara erabiliak aldatzeko eragiketetan sortzen da. Hondakinarentzat identifikatu den kutxa batean jaso eta berariaz prestatutako leku batean uzten da.

○ 25. hondakina: «Transmisio mekanikoko bestelako motor-olioak eta lubrifikatzaileak».

– Identifikazioa: A78876331/4800900030/3/25.

– Hondakinaren kodea: Q7//R9//L8//C51//H5-6//A750//B0019.

– EHZ: 13 02 08.

Hainbat makinatan olioa berrezartzeko lanetan sortzen da; olio hidrauliko erabiliak dira. Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da sortzen den postuan edo postuetan. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

a) Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak bereiziak izango dira, duten tipologia dela-eta, isuriren bat gertatuz gero, nahasi, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu dezaketen kasuetan.

b) Hondakin arriskutsuak dituzten ontziek hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzko maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea betearazteko erregelamendua onartzen duen uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 13. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak kontuan izan beharko dituzte, eta itxita egongo dira kudeatzaileak jaso arte, isuri edo lurrundu ez daitezen.

c) Aurreko atalean aipatzen diren ontziek etiketatuta egon beharko dute, eta etiketak argia, irakurtzeko modukoa eta ezabaezina izan beharko du; etiketa uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 14. artikuluan horretarako adierazitako jarraibideen araberakoa izango da.

d) Hondakin arriskutsuak gordetzeko denbora ezingo da 6 hilabetetik gorakoa izan.

e) Aurkeztutako agirien arabera, UEB, Maxam Europe (Galdakaoko fabrika), Maxam Outdoor eta SDP fabrikak biltegi nagusi bakarra dute hondakin arriskutsuak gordetzeko. Hondakinak biltegiratzen dituzten enpresa guztiak Maxam Corp. SAU sozietatearen barruan daude, eta filial guztiek aseguru-poliza bera dute. 2006ko irailaren 4ko erantzukizun partekatuko erabakiaren arabera, aipatutako biltegiratzean gertatutako edozein istripu/gertakariren aurrean erantzukizun partekatuko konpromisoa hartzea erabaki dute. Hona hemen dauden neurri zuzentzaileak: lurzoru irazgaitza, jarraikia drainatzerik gabe, eraikina erabat estalia eta orgatilak sartzeko goragunearekin; hondakin-motaren arabera bereizitako bidoiak, su itzalgailuak eta suteen aurkako sarea kanpoaldean. Hondakinen gaur egungo biltegiratzean edo lehen aipatutako akordioaren inguruan aldaketaren bat badago, berehala jakinarazi beharko zaio Sailburuordetza honi.

f) Hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eraman aurretik, nahitaezko baldintza izango da agiri baten bidez egiaztatzea kudeatzaile baimendu horrek hondakinak onartu dituela. Agiri horretan hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin bat datozela. Agiri hori Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da hondakina lehenengoz erretiratu aurretik eta, behar izanez gero, hondakinen kudeatzaile berri batengana eraman aurretik. Beharrezkoa izanez gero, karakterizazio xehatua egingo da, proposatutako tratamenduaren egokitasuna egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua Ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela.

g) Hondakin arriskutsuak eraman aurretik eta, hala badagokio, araudian ezarritako aurretiazko jakinarazpena egin ondoren, kontrolerako eta jarraipenerako agiria bete beharko da. Agiri horren zati bat garraiolariari emango zaio, zamarekin batera jatorritik helmugaraino eraman dezan. Maxamcorp SAU enpresak artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak eta kontrolerako zein jarraipenerako agiriak, edo horien agiri ofizial baliokidea, bost urtean gutxienez.

h) Egiaztatu egin beharko da hondakin arriskutsuak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eramateko erabiliko den garraiobideak horrelako gaiak garraiatzeko indarrean dagoen legerian ezarritako baldintzak betetzen dituela.

i) Eztandarako materialen edo produktuen hondakinetarako, lehergaien araudia onartzen duen otsailaren 16ko 230/1998 Errege Dekretuaren, eta otsailaren 16ko 230/1998 Errege Dekretu bidez onartutako Lehergaien inguruko Araudia aldatzen duen martxoaren 11ko 277/2005 Errege Dekretuaren arabera Ministerioak ematen duen dagokion kudeatzeko baimena beharko da.

j) Maxamcorp SAU enpresak ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari, Industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duenari, jarraituz kudeatu beharko du sortutako olio erabilia.

k) Ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuan, industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duenean, aurreikusitako baimendutako kudeaketa bateraturako sistema bat ezartzen ez den bitartean, irailaren 29ko 259/1998 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoan erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duenean, begiesten diren aurreikuspenak bete beharko ditu Maxamcorp SAU enpresak.

l) Ekipo elektriko eta elektronikoen hondakinak, horien artean hodi fluoreszenteak, otsailaren 25eko 208/2005 Errege Dekretuan, tresna elektriko zein elektronikoei eta horien hondakinen kudeaketari buruzkoan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira.

m) Maxamcorp SAU enpresak poliklorobifeniloak eduki ditzaketen gailuak dituenez, nahitaez bete behar ditu poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten gailuak ezabatu eta

kudeatzeko neurriak ezartzen dituen abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretuaren baldintzak eta Errege Dekretu hori aldatzen duen otsailaren 24ko 228/2006 Errege Dekretua; gero, azken ekitaldiari dagokion poliklorobifenilo edukia jakinarazi beharko du. Maxamcorp SAU enpresak poliklorobifeniloak dituen artean, nahitaez aurkeztu behar du urtero Errege Dekretu horrek araututako jakinarazpena.

n) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko ekainaren 29ko 2037/2000 EE Erregelamenduan ozono-geruza agortzen duten substantzia batzuk zehazten eta arautzen dira. Maxamcorp SAU enpresak era horretako substantzia erabilirik badu, substantzia horiek bildu eta suntsitu egingo dira aldeek erabakitako bide teknikoak erabiliz edota ingurumen-ikuspuntutik onar daitekeen suntsiketarako beste edozein bide erabiliz; hondakin horiek birziklatu edo birsortu egingo dira bestela, aparatuak aztertu eta mantentzeko lanak egitean nahiz desmuntatu edo suntsitu baino lehen.

o) Erregistro bat edukiko du, hondakin arriskutsuei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera- eta lagapen-datak, jasotzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua, uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren 17. artikuluan ezarritakoa betez, eta uztailaren 20ko 952/1997 Errege Dekretuaren bidezko aldaketan ezarritakoa betez. Sei hilean behin, Ingurumen Sailburuordetzari kontrolerako erregistro horren kopia bidaliko dio.

p) Atal honetako f), g) (kudeatzaileak EAEn daudenean), eta o) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-L03 Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

q) Amiantoa duten hondakinak antzemanez gero, Maxamcorp SAU enpresak 108/1991 Errege Dekretuan (3. artikulua), amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzekoan, ezarritako eskakizunak bete beharko ditu. Era berean, amiantoa duten hondakinak kudeatzeko egingo diren manipulazioak 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako aginduen arabera burutuko dira; dekretu horren bidez ezarri ziren amiantoarekin lan egiterakoan segurtasun eta osasun arloan bete behar diren gutxieneko baldintzak.

B.1.3.2.– Hondakin ez-arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin ez-arriskutsuak hauek dira:

Hondakinaren izena	EHZ kodea	Zein prozesuri lotuta
Zurezko paletak	20 01 38	Lehengaiei eta osagarriei bilgarria kentzea
Plastikoak	20 01 39	Zerbitzu orokorrak
Txatarra	20 01 40	Mantentze-lanak
Hiri-hondakin solidoak	20 03 01	Zerbitzu orokorrak
Papera/Kartoia	20 01 01	Zerbitzu orokorrak

Aurreko taulan identifikatutako hondakin bakoitzetik urtean sortutako kantitateak (kg) adierazi beharko dira.

a) Erabilitako ontziak eta ontzi-hondakinak gaika behar bezala bereizi eta eragile ekonomiko bati emango zaizkio (hornitzaileari), erabilitako ontzien kasuan berriro erabili ahal izateko; ontzi-hondakinak, berriz, berreskuratzaile, birziklatzaile edo balioztagune baimendu batera.

b) Hondakin horiek 2 urtez gorde ahal izango dira gehienez.

c) Oro har, hondakinak hustu aurretik, baimendutako kudeatzaile batek onartzen dituela dioen agiria izan beharko dute, onarpen horretarako baldintzak zehaztuta. Agiri horren kopia bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara, proposatutako kudeaketa egokia dela eta ebazpen honetan ezarritako oinarrizko printzipioak betetzen direla egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua Ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela. Maxamcorp SAU enpresak artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak, edo horien agiri ofizial baliokidea, horiek derrigorrezkoak direnean, bost urtean gutxienez.

d) Halaber, hondakin geldo eta geldotuen kudeaketari buruzko azaroaren 2ko 423/1994 Dekretuarekin bat etorriz, hondakin ez-arriskutsuak zabortegi baimendu batera eraman aurretik, jarraipenerako eta kontrolerako dagokion agiria bete beharko da. Agiri horiek bost urtez gorde beharko dira.

e) Erregistro bat egingo da, hondakinei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera- eta lagapen-datak, biltzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua. Urtero, Ingurumen Sailburuordetzari bidaliko zaio kontrolerako erregistro horren kopia.

f) Aipatutako c), d) (kudeatzaileak EAEn daudenean) eta e) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-L03 Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

B.1.4.– Lurzorua babesteko baldintzak.

Urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan eta otsailaren 4ko 1/2005 Legean ezarritako aginduak betez lurzoruaren egoerari buruz aurkeztu duten aurretiazko txostenean jasota dauden gomendioen arabera, Maxamcorp SAU enpresak lurzoruaren babesa ziurtatzeko behar diren neurriak hartu beharko ditu, eta bereziki hauek:

- Erabilitako olioen biltegia maiz garbitzea.
- Hondakin arriskutsuen biltegian dagoen itogina konpontzea.
- Asuko erregailuak maiz garbitzea.

B.1.5.– Zaratari buruzko baldintzak.

Jarraian adierazitako zarata-mailak ez gainditzeko neurriak instalatuko dira:

a) Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 40 dB (A) baino handiagoa izan Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 08:00ak eta 22:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 45 dB (A) ere gehienezko balioetan.

b) Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 30 dB (A) baino handiagoa izan Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 22:00ak eta 08:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 35 dB (A) ere gehienezko balioetan.

c) Era berean, zarata ezin da 60 dB (A) baino handiagoa izan, Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, industria-eremuaren kanpoko itxituran.

d) Zamalanetan eta materiala kamioietan garraiatzean egiten den zaratak ez du handituko sentsibilitate akustiko handieneko guneetako zarata-maila.

C) Ingurumena Zaintzeko Programa.

Ingurumena zaintzeko programa sustatzaileak aurkeztutako agirietan aurreikusitakoaren eta ondoko atal hauetan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko da:

C.1.– Atmosferara botatzen diren poluitzaileak kontrolatzea.

a) Maxamcorp SAU enpresak isuriak kontrolatu beharko ditu, ondorengo informazioaren arabera:

Fokua	Erregistro-liburuaren izena	Fokuaren izena	Neurketak	Kontrolen maiztasuna
1	48007640-01	1. galdara	Nitrogeno oxidoak	Bost urtean behin
			Karbono monoxidoa	
2	48007640-02	2. galdara	Nitrogeno oxidoak	Bost urtean behin
			Karbono monoxidoa	

b) Aurreko atalean aipatutako neurketa guztiak kontrol erakunde baimendu (KEB) batek egin beharko ditu (zortzi ordutan hartutako hiru neurketa, gutxienez ordubetekoa bakoitza), eta aldizkako kontrol horiei buruzko txostenak Ingurumen Sailburuordetza honek prestatutako «kontrol erakunde baimenduen gutxieneko txostenean» ezarritakora egokitu beharko du. Edonola ere, isurien kontrolek eta baldintzek Sailburuordetzaren jarraibide teknikoetan ezarritako eskakizun guztiak bete beharko dituzte.

c) Arestian eskatutako parametro guztien neurketen KEB txostenak bidaliko dira. Parametroak neurtu ez badira edo ebazpen honetan neurketak egiteko ezarritako maiztasuna baina zaharragoak badira, berriro neurtu beharko dira. Atmosferara egiten diren isurtzeen ondorengo kontrolak, egindako azken neurketan adierazitako maiztasunarekin gauzatuko dira.

C.1.1.– Lortutako emaitzak erregistratzea.

Erregistro bat egin beharko da euskarri informatikoan edo, horrelakorik ezean, paperean. Dokumentazio gaurkotua erabilita gauzatuko da erregistroa, eta industriak atmosferan sortzen duen kutsadura saihestu eta zuzentzeari buruzko 1976ko urriaren 18ko Aginduak 33. artikuluan ezarritako edukia jaso beharko du. Erregistro horretan adieraziko dira egindako neurketen emaitzak, mantentze-lanak, garbiketa, aldizkako ikuskatzeak, matxuraren ondorioz gertatutako etenaldiak, egiaztapenak, edozein motako gorabeherak, eta abar. Dokumentazio horrek eguneratuta egon beharko du, eta ingurumen-ikuskatzaileek eskuragarri izango dute.

C.2.– Isuritako uraren kalitatea kontrolatzea.

a) Sustatzaileak aurkeztu dituen agirien arabera, ondorengo analisiak egingo dira:

Isurketa-puntua	Ingurune hartzailea	Kontrolatu beharreko fluxua	Kontrol-kutxetaren UTM koordenatuak	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna	Kontrol-mota
1	Saneamendu-sare orokorra (Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoa)	Industria-urak eta hozte-urak	X: 511.867 Y: 4.786.417	Tenperatura (ºC)	Sei hilekoa	Kanpokoa (ENACek egiaztatutako laborategia)
				Batez besteko tenperatura (ºC)		
				pH		
				Olioak eta koipeak (mineralak) (mg/l)		
				Olioak eta koipeak (jatorri begetala eta animaliena) (mg/l)		
				Nitrogeno amoniakala (mg/l)		
				Nitrogeno amoniakal oldar.		
				Solido esekiak guztira (mg/l)		
				Kobrea guztira		
				Zinka guztira		
				Kadmioa guztira		
				Beruna guztira		
				Artsenikoa guztira		
				Kromoa guztira		
				Sulfato disolbatua (mg/l)		
				Sulfuroak (mg/l)		
				Nikela guztira		
				Burdina guztira (mg/l)		
				Merkurioa eta horren konposatuak (mg/l)		
				Zianuroak (mg/l)		
				Zilarra (mg/l)		
				Fenolak		
		Industria-urak eta hozte-urak	X: 511.867 Y: 4.786.417	pH	Hilerokoa	Barnekoa (autokontrola)
				Oxigeno-eskari kimikoa		
				Solido esekiak guztira		
				Amoniakoa		
				Alkohol etilikoa		
				Azetona		
				Sulfatoak		
				Nitratoak		
				Zianuroak		

b) Kontrol bakoitza, laginak hartzea nola ondorengo analisia, «Erakunde Laguntzaile» batek egin eta egiaztatuko du, eta aurreko puntuetan aipatutako parametroak hartuko dira kontuan. Sustatzaileak isurketa-puntu bakoitzeko lagin hartu berri baten analisia aurkeztu beharko du gutxienez; lagina 24 orduko ur-emariarekiko proportzionala izango da, edo bestela, lagin puntual esanguratsua.

Isurketen kontrolen emaitzak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira laginak hartzen direnetik hilabete bateko (1) epean.

c) Laginketak kutsatzaile gehien sortzen den aldietan egingo dira beti.

d) Isurketak baimenean jarritako baldintza guztiak betetzen dituela ulertuko da, B.1.2.3 atalean ageri diren parametro guztiek ezarritako mugak betetzen baditu.

C.3.– Zarataren kontrola.

Jarduera garatzen den lur zatiko kanpoko baldintza akustikoak hiru urtean behin kontrolatuko dira, batez ere zarata etxe barruetara sartzeko arriskurik handiena dagoen aldeetan. Kontroleko lehen urtean izandako emaitzen arabera erabakiko da aurrerantzean neurketak urtero egin ala ez.

Sustatzaileak neurketen proposamen zehatz bat landu beharko du eta neurketa-metodo zehatzak adierazi bertan. Proposamen hori ebazpen honetako C.6 atalean aipatzen den ingurumena zaintzeko programaren testu bateginarekin batera aurkeztuko da.

C.4.– Jardueraren adierazleak kontrolatzea.

Sustatzaileak jardueraren gaineko ondorengo parametro adierazleen jarraipena egingo du urtero, ingurumenean duten eragina aztertzeko:

Ingurumenaren gaia	Enpresari eskatutako abiapuntuko datuak	Unitatea	Adierazlea	Unitatea	Maiztasuna
Ekoizpena	Inpregnazioen fabrikazioa	t			urtero
	Hauts-lehergaien (ligamitak, amonitak eta segurtasuneko lehergaiak) fabrikazioa	t			urtero
	Nagolitaren fabrikazioa	t			urtero
	Nitroglizerina eta nitroglikolaren fabrikazioa	t			urtero
	Bolbora beltzaren fabrikazioa	t			urtero
	Produktu kimikoen guztizko fabrikazioa	t			urtero
Materialen kontsumoa	Inpregnaziotarako materialen guztizko kontsumoa	t	Inpregnaziotarako materialen guztizko kontsumoa / Inpregnazioen guztizko produkzioa	t/t	urtero
	Hauts-lehergaietarako materialen (ligamitak, amonitak eta segurtasuneko lehergaiak) guztizko kontsumoa	t	Hauts-lehergaiak (ligamitak, amonitak eta segurtasuneko lehergaiak) / Hauts-lehergaietarako materialen (ligamitak, amonitak eta segurtasuneko lehergaiak) guztizko produkzioa	t/t	urtero
	Nagolitarako materialen guztizko kontsumoa	t	Nagolitarako materialen guztizko kontsumoa / Nagolitarako materialen guztizko produkzioa	t/t	urtero
	Nitroglizerina eta nitroglikolerako materialen guztizko kontsumoa	t	Nitroglizerina eta nitroglikolerako materialen guztizko kontsumoa / Nitroglizerina eta nitroglikolerako materialen guztizko produkzioa	t/t	urtero
	Bolbora beltzerako materialen guztizko kontsumoa	t	Bolbora beltzerako materialen guztizko kontsumoa / Bolbora beltzerako materialen guztizko produkzioa	t/t	urtero
Energiaren kontsumoa	Gas naturalaren kontsumoa	kWh	Gas naturalaren kontsumoa/ energiaren guztizko kontsumoa	(%)kWh/kWh	urtero
	Elektrizitate-kontsumoa (autokontsumoa)	kWh	Elektrizitate-kontsumoa (autokontsumoa)/energiaren guztizko kontsumoa	(%)kWh/kWh	urtero
	Energiaren guztizko kontsumoa	kWh	Energia-kontsumoa (gasa)/tona produktu kimiko	kWh / t produktu kimiko	urtero

Ingurumenaren gaia	Enpresari eskatutako abiapuntuko datuak	Unitatea	Adierazlea	Unitatea	Maiztasuna
Isurtze atmosferikoak	CO isuriak (batez bestekoa, max, min, lagin kop.)/1 eta 2 fokutarako (g.n-ko galdarak)	mg/Nm^3 (min., max. eta batez bestekoa)	CO isuriak (batez bestekoa, max, min, lagin kop.)/1 eta 2 fokutarako (g.n-ko galdarak)	mg/Nm^3 (min., max. eta batez bestekoa)	urtero
	CO isuriak	kg	CO isuriak	kg	urtero
			CO isuriak/ fabrikatutako produktu kimikoko tonak	kg/t	
	NO_X isuriak (batez bestekoa, max, min, lagin kop.)/1 eta 2 fokuak (g.n-ko galdarak)	mg/Nm^3 (min., max. eta batez bestekoa)	NO_X isuriak (batez bestekoa, max, min, lagin kop.)/1 eta 2 fokuak (g.n-ko galdarak)	mg/Nm^3 (min., max. eta batez bestekoa)	urtero
	NO_X isuriak	kg	NO_X isuriak	kg	urtero
			NO_X isuriak/produktu fabrikatuko tonak	kg/t	
Ur kontsumoa	Ur-kontsumoa	m^3	Ur-kontsumoa	m^3	urtero
			Ur kontsumoa / Produktu kimikoen guztizko fabrikazioa	Produktu kimikoen m^3 /t	urtero
Uretara egindako isurketak	Industria-isuriak	m^3	Industria-isuriak/BB Partzuergoa	m^3	urtero
	Euri-uren isuria/BB Partzuergoa	m^3	Euri-uren isuria/BB Partzuergoa	m^3	urtero
Hondakin arriskutsuak	Sortutako hondakin arriskutsuak	t	Hondakin arriskutsu baliotuak / Sortutako hondakin arriskutsuak (araztegi-lohiak…)	%	urtero
	Hondakin arriskutsu baliotuak	t			urtero
	Glizerina zaharkitua	t	Glizerina zaharkitua/Nitroglizerina eta glikol, eta inpregnazioen produkzioa	t	urtero
Hondakin ez arriskutsuak	Sortutako hondakin ez-arriskutsuak	t	Hondakin ez-arriskutsu baliotuak / Sortutako hondakin ez-arriskutsuak	%	urtero
	Sortutako hondakin ez-arriskutsuak	t			urtero
Lurzoruaren kutsadura	Ustekabeko isuriekin lotutako gorabehera kopurua (ingurune hartzailea zehaztu: airea, ura, lurzorua)	Kopurua/urte	Ustekabeko isuriekin lotutako gorabehera kopurua	Kopurua / urte	urtero
IKS	Ezarri eta egiaztatutako kudeaketa-sistemak (zehaztu)	Bai/Ez Zein/ urtea	Ekoscan/ Urtea eta/edo ISO14001/ Urtea eta/edo EMAS/ Urtea	Bai/Ez Zein/ urtea	urtero

C.5.– Emaitzak kontrolatu eta bidaltzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten analisi eta txostenen emaitzak behar bezala erregistratuko dira, eta Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira. Ingurumena zaintzeko programaren emaitzak urtean behin bidaliko dira, beti martxoaren 30a baino lehen, ingurumenean aditua den erakunde aske batek egindako txostenarekin batera. Txosten horretan adieraziko dira neurri zuzentzaileen funtzionamendua, eta prozesuak eta ingurunearen kalitatea kontrolatzeko sistemak. Emaitzen analisia ere adieraziko da, eta bereziki aipatuko dira aldi horretan gertatu diren gorabehera garrantzitsuenak, horien ustezko arrazoiak eta konponbideak, eta baita laginketen xehetasunak ere, aurretik zehaztu ez baldin badira.

C.6.– Ingurumena Zaintzeko Programaren agiri bategina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina landu beharko du, ingurumenaren gaineko eraginari buruzko azterlanean eta ebazpen honetan proposatutako betekizunak bilduz. Programa horrek hauek zehaztu beharko ditu: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, analisi edo neurketen maiztasuna, laginketak eta analisiak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko guneen kokapen xehatua. Halaber, dagokion aurrekontua ere barne hartu beharko du.

Era berean, ingurumena zaintzeko programak jardueraren adierazleak zehaztu eta adierazle horiek aztertzeko sistematika barruan izan beharko du, horien arabera enpresan bertan ingurumen-hobekuntza ziurtatzearren ezarritako neurri eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatu ahal izateko (ingurumen-adierazleak).

D) Ezohiko egoeretan kutsadurari aurrea hartzeko neurriak eta jardunerako baldintzak.

D.1.– Fabrika gelditzeko eta abiarazteko eragiketak eta mantentze-lanetarako programatutako eragiketak.

Programatutako urteko mantentze-lanei dagokienez, isurien eta sortuko diren hondakinen balioespena egin beharko du enpresak, eta dagokionean, horiek kudeatzeko eta tratatzeko proposamena ere bai.

D.2.– Jarduera uztea.

Jarduera lege hauen aplikazio-esparrukoa da: lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legea, eta kutsadura sor dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpide zein estandarrak ezartzen dituen urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretua. Hori dela-eta, Maxamcorp SAU enpresak hasiera eman beharko dio lurzoruaren kalitatearen adierazpenerako prozedurari, gehienez ere bi hilabeteko epean, jarduera behin betiko uzten duenetik kontatzen hasita, otsailaren 4ko 1/2005 Legeak 17.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

D.3.– Ezohiko jardunean aplikatzeko prebentziozko neurriak eta jarduketak.

Oinarrizko Proiektuko «Ingurumeneko larrialdien kasuan jarduteko protokoloa» atalean egindako proposamenean ez-ohiko egoeretan aplikatu beharreko prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak zehazten dira. Horiez gain, ondorengo ataletan aipatzen diren baldintzak bete behar dira:

a) Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera bermatzeko, batez ere ustekabeko jario edo ihesak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei dagokienez. Ihesak daudenean lurzorua babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (iragazkaiztea), biltegiratzeko neurri bereziak (gai arriskutsuak), egon daitezkeen ihesak antzemateko neurriak edo gainbetetzerako alarma-sistemak, lantegiko kolektore-sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitzeko beharra, maiztasuna, garbiketa-mota), eta lurzoruaren gaineko isuriak biltzeko sistemak.

b) Aurreko paragrafoan adierazitako eskuliburuak ikuskapen eta kontrolerako programa jaso beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera, balbulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, andelen barnealdearen

begi-bidezko ikuskapenak (hormena eta estaldurena) eta kubetetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, lurzorua kutsa dezakeen edozein egoerari aurrea hartzeko.

c) Goian aipatutako prebentziozko mantentze-lanen eskuliburuan, atmosferaren kutsadurari aurrea hartzeko eta zuzentzeko (arazketa, minimizazioa, eta abar) sistemen egoera ona bermatuko duten neurriak gehitu behar dira.

d) Era berean, erregistro bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gorabeherena ere.

e) Beste hainbaten artean nitroglizerina, alkohol etilikoa, etilzentralita, nitroglikola, trinitrotoluenoa, amonio nitratoa, sodio nitratoa, amonio kloruroa, gasolioa, azido nitrikoa, azido sulfurikoa, glizerina eta glikola erabiltzeak lurzorua eta ura kutsa ditzake. Beraz, isuriak, jarioak edo ihesak gertatzeko arriskua izan dezaketen lur zatien azalera guztiak irazgaiztuko dira.

f) Prozesurako behar diren lehengaiak, erregaiak eta produktuak ingurunean ez sakabanatzeko moduan biltegiratuko dira.

g) Larrialdi-egoera sortzen denean, berehala eta eraginkortasunez jarduteko behar beste material eduki behar da: berriro ontziratzeko erreserbako edukiontziak, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen jarioei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak, segurtasuneko edukiontziak, hesiak eta kaltetutako inguruneak isolatzeko seinaleztapen-elementuak eta babes pertsonalerako ekipamendu bereziak.

h) Ingurumen Sailburuordetza honetara bidaliko da kubetak husteko eragiketak kontrolatzeko protokolo edo agiri bidezko prozedura; eraginkortasunean eragin dezaketen produktuen jarioak ez dira tratamenduko instalaziora eramango.

i) Pabiloien barruan zolak garbitzean sortutako ura tratamendu-lerrora bidaliko da.

j) Hobi septikoaren sistemak garbitze- eta mantentze-lan egokia izango du errendimendu ona ziurtatzeko. Aldizka enpresa espezializatu batek erretiratuko ditu pilatutako solido eta lohiak, eta garbiketan arrastatutako solidoak ibilgura hustea saihestuko da.

k) Urtean behin instalazio horien garbiketaren eta mantentze-lanen fakturaren kopia bat bidaliko da.

l) Larrialdi-egoeretan, babes zibileko legeriari helduko zaio, eta bertan ezarritako betekizun guzti-guztiak bete beharko dira.

m) Titularrak behar diren bitartekoak izango ditu arazketa-instalazioak zuzen ustiatzeko eta ustekabeko isurketak prebenitzeko hartu diren segurtasun-neurriak abian izateko.

n) Ingurunearen edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragin ditzakeen gorabehera edo ez-ohiko gertaeraren baten aurrean (besteak beste, ustekabeko isuri bat gertatzea, isurtzeko muga-balioak gainditzea), sustatzaileak berehala gorabehera edo ez-ohiko gertaera horren berri eman beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari.

o) Gorabehera edo arazo larriren bat edo ustekabeko isuriren bat egonez gero, SOS Deiak eta Udalari ere jakinarazi beharko zaie berehala. Ondoren, eta gehienez ere 48 orduko epean, ezbeharrari buruzko txosten xehatua bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara, eta bertan, datu hauek agertuko dira gutxienez:

- Gertakari-mota.

- Gertakaria non, zergatik eta zein ordutan gertatu den.
- Iraupena.
- Ustekabeko isuria izanez gero, emaria eta isuritako gaiak.
- Mailak gainditu badira, isurtzeei buruzko datuak.
- Eragindako kalteen balioespena.
- Hartutako neurri zuzentzaileak.
- Prebentziozko neurriak berriro gerta ez dadin.
- Prebentziozko neurriak eraginkortasunez aplikatzeko ezarritako epeak.

p) Instalazioek suteen aurkako babesari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betekizunak betetzen dituztela egiaztatu beharko da. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

E) Baldin eta arautegi berria indarrean sartzean, edo barneratzen diren sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hala egitera bagaramatza, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa aldarazi ahal izango dira, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, baita neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan ere. Era berean, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa, jardueraren sustatzaileak hala eskatuta, edo ofizioz, aldaraz daitezke, ingurumena zaintzeko programan lortutako emaitzetan oinarrituta.

F) Urtean behin Maxamcorp SAU enpresak Ingurumen Sailburuordetzari jakinaraziko dizkio atmosferara botatako kutsagarriei, uretara egindako isurketei eta sortu dituen hondakinei buruzko datuak, E-PRTR-Euskadi, botatako eta eskualdatutako kutsagarrien Europako Inbentarioa landu eta eguneratzeko, apirilaren 20ko 508/2007 Errege Dekretuaren, E-PRTR Araudiko eta ingurumeneko baimen bateratuetako isurketen gaineko informazioa ematea arautzen duenari jarraituz.

Informazio hori ekitaldi horren hurrengo martxoaren 31 baino lehen bidali beharko da. Informazioa Ingurumenari buruzko Adierazpenaren (IA) bidez gauzatuko da, hori baita kanpoko erakundeek eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak ingurumen-informazioa batak besteari elektronikoki emateko ardatza. Informazio-trukaketa horren funtsa Ingurumenari buruzko Adierazpenari (IA) dagozkion ingurumeneko datu teknikoak eta prozedurakoak sartzean datza, IKS-L03 Sistemako erakundeentzako bertsioaren bidez (www.eper-euskadi.net web orrian eskuragarri): Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Ingurumen-informazioa Kudeatzeko Sistema. Datu horiek guztiek Ingurumenean Eragina duten Jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroa osatuko dute, Europako Ingurumen Agentziaren Erregistrora (Europako E-PRTR Erregistroa) egiten diren informazio-bidalketen oinarri dena.

Halaber, ebazpen honetan aurreikusitako gainerako informazio-trukeak aipatutako Ingurumenari buruzko Adierazpenaren bidez gauzatuko dira, ahal izanez gero.

Informazio hori agerikoa izango da, uztailaren 18ko 27/2006 Legearen xedapenekin bat etorriz. Lege horren bidez informazioa eskuragarri izateko, herritarren partaidetzarako eta ingurumen-gaietan justizia eskura izateko eskubideak arautzen dira (2003/4/EE eta 2003/2005/EE Zuzentarauak jasotzen ditu). Horrez gain, uneoro bermatu beharko da datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betetzen dela.

G) Ingurumeneko baimen bateratu honen eraginpeko instalazioan egindako aldaketek bat etorri beharko dute kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak 10.3 artikuluan ezarritako komunikazio-erregimenarekin. Hori horrela, ingurumeneko beste baimen bateratu bat beharko da aldaketak funtsezkoak direnean.

Hirugarrena.– Ebazpen hau eraginkorra izan dadin, aurretik Ingurumen Sailburuordetzari agiri bidez egiaztatu beharko zaio Ebazpen honetako Bigarren ataleko honako puntu hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla: B.1.3.1.f) eta B.1.3.2.c) (Sortutako hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuak onartzeko agiria); B.1.3.1.m) (Poliklorobifeniloa dutenaren adierazpena) B.1.3.1 o) eta B.1.3.2.e) (Sortutako hondakin arriskutsuen eta ez-arriskutsuen kontrolaren erregistroa egiteko eredua); B.1.4 (Lurzorua babesteko neurriak), hala badagokio, C.1 (Atmosferara botatzen diren poluitzaileak kontrolatzea); C.1.1 (Atmosferara egiten diren isuriak erregistratzeko eredua), C.3 (Zarata neurtzeko proposamena), C.6 (Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina); D.1 (Aurreikusitako geldialdietan sortutako isurketen eta hondakinen balioespena); D.3.a), b) eta c) (Prebentzioko mantentze-lanetarako eskuliburua, eta ikuskaritza eta kontrolerako programa); D.3.g) (Larrialdi-egoeretarako eskuragarri dauden materialen zerrenda), D.3.h) (Kubetak husteko protokoloa), D.3.p) (Suteen aurkako araudia betetzen dela adierazten duen ziurtagiria).

Halaber, baimen hau indarrean jarri aurretik, ingurumen organo honi atxikitako zerbitzu teknikoen ikuskaritza-bisitan egiaztatu beharko da instalazioak aurkeztutako proiektuaren arabera eta Ebazpen honetan ezarritakoarekin bat etorrita eraiki eta hornitu direla. Horretarako, aipatutako ikuskapen-bisitaren aurretik, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu beharko du baldintza horiek betetzen direla egiaztatzen duen agiria, teknikari aditu batek eginda.

Atal honetan aipatutako baldintza guztiak betetzeko 6 hilabeteko epea ezarri da, ingurumeneko baimen bateratua eraginkorra dela adierazteko Ingurumen Sailburuordetzak emandako ebazpen hau jakinarazten den biharamunetik kontatzen hasita.

Adierazitako baldintzak betetzen direla ziurtatzean, ebazpena emango da eta, horren bitartez, ingurumeneko baimen bateratua eraginkortzat aitortuko da.

Laugarrena.– Ingurumeneko baimen bateratu hau 8 urteko epean egongo da indarrean, aurreko atalean ezarritakoaren arabera ondorioak dauzkan egunetik kontatzen hasita. Epe hori igarota, baimena berritu egin beharko da eta, hala badagokio, jarraian datozen aldietarako eguneratu.

Ingurumeneko baimen bateratua amaitu baino hamar hilabete lehenago, titularrak baimena berritzeko eskaera egin beharko du, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 25. artikuluan xedatutakoa betez.

Apirilaren 20ko 509/2007 EDren 7. artikuluaren arabera, baimena berritzeko gutxienez aurkeztu behar den dokumentazioa instalazioko gertaera, egoera eta gainerako ezaugarri teknikoen agiriak, eta prozesuaren eta kokapenaren agiriak dira, betiere jatorrizko baimen-eskaeran edo balioaldiak iraun duen bitartean aurkeztu ez bada. Baimena berritzeko izapideei dagokienez, informazio publikoko izapidea beteko da eta udalari eta Arroko Erakundeari kasuan kasu txostenak eskatuko zaizkie; halaber, entzunaldi-izapidea beteko da, gutxienez.

Bosgarrena.– Edozein modutan ere, ingurumeneko baimen bateratua ofizioz aldatu ahal izango da uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 26. artikuluan ezarritako kasuak aintzat hartuta.

Seigarrena.– Maxamcorp SAU enpresak Ebazpen honen xede den bolbora eta lehergaiak fabrikatzearen inguruan titulartasun-aldaketarik eginez gero, aldaketa hori Ingurumen Sailburuordetzan jakinarazi beharko du, hark onar dezan.

Zazpigarrena.– Baimen honek balioa galduko du kausa hauek gertatzen direnean:

● Epearen barruan ez egiaztatzea ebazpen honetako Hirugarren atalean ingurumeneko baimen bateratuak ondorioak izan ditzan ezarritako baldintzak betetzen direla, interesdunak behar bezala justifikatuz epea luzatzeko eskatzen ez badu.

● Maxamcorp SAU enpresaren nortasun juridikoa bukatzea, indarrean dagoen araudian ezarritako kasuetan.

● Baimena indarrean jartzen dela adierazten duen ebazpenean xedatutakoak.

Zortzigarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea Maxamcorp SAU enpresari, Galdakaoko Udalari, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozeduran parte hartu duten erakundeei, eta gainerako interesdunei.

Bederatzigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Hamargarrena.– Ebazpen honek ez du agortzen administrazio-bidea; horrenbestez, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunean kontatzen hasita, hori guztia Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikuluarekin eta ondorengoekin bat etorriz (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen lege hori).

Vitoria-Gasteiz, 2008ko martxoaren 25a.

Ingurumeneko sailburuordea,
IBON GALARRAGA GALLASTEGUI.